

2024 05 26

TXONBO!

IBILALDIA 2024 GETXO

GEHIGARRIA **GARA**



Euskaraz blaitzeko eta ikastolen lana aldarrikatzeko hitzordua

Heldu da, hemen da 2024ko Ibilaldia. Oraingo honetan Bizkaiko ikastolen aldeko festa mundiala haren jatorrira itzuli da. Izan ere, Getxoko udalerrian ospatu zen Bizkaiko ikastolen estreinako jaia duela 46 urte. Aurtengo edizioan Algortako San Nikolas ikastolak izan du festaren antolakuntzaren ardura, eta adin guztietako pertsonen gozatzeko moduko festa erakargarri eta gozagarria prestatu dute. Txonbo! da aurtengo leloa. Bizkaiko leku askotan uretan murgiltzeari buruz hitz egiteko erabiltzen den esamolde horrekin, euskaraz busti eta harekin murgiltzera gonbidatu nahi izan dituzte herritarrek.

ERREPORTAJEA

Mikel AGINAGALDE | GETXO

Aurtengo ekitaldiaren helburuak ere zehaztu dituzte: hasteko, euskalduntasuna, euskal kultura eta ikastola ardatz dituen jaia sortzea; bestetik, Getxoko gizarte-eragileekin lankidetzan harremanak sendotzea, hezkuntza komunitate osoak (guraso, ikasle, irakasle, langile...) ikastolarekiko duen atxikimendua areagotzea; horrez gain, Ikastolen finantzazio indibidual zein kolektiboa eta inbertsio ekimen berritzaileak diru baliabideez hornitzen dituen jaia izatea; eta azkenik, gaztetxoek eta nera-

been jarrera parte hartzailea eta hezitzailea bultzatuko duen jaia antolatzea.

Aipatu xedeez gain, festaren antolatzaileek jai eredu jasagarri, berde eta ekologikoa bultzatzeko asmoa dute, eta modu horretan ingurumen inpaktua txikiagotzeko eta praktika jasagarriak sustatzeko neurriak ezarri dituzte. Zentzu horretan, esan beharra dago San Nikolas ikastolak ingurumenarekiko duen konpromisoa aitortzen eta bermatzen duen Erronka Garbia ziurtagiria lortzeko aparteko lana egin duela. Erronka garbi horren metodologia sei jarduera ardatzetan aplikatzen da, ekitaldiaren fase bakoitzean (azpiegiturak, erosketak, energia, ura, mugikortasuna, hondakinak)

ingurumen inpaktua gutxitzeko. Hala, igandeko festara bertaratzeko asmoa duten herritarrei eskatu diete herria errespetatzeko, hondakinak dagozkien edukiontzietan botatzeko eta ekitaldian jokabide arduratsuak izateko.

LAU GUNE, MILA AUKERA

Helburu horiek erdiesteko, hain justu, lau gunez eta hamaika ekimenez osatutako ibilbidea atondu dute. Udalerriko zenbait txoko ezagun eta maitatu izango dira gune horien kokalekua, eta adin guztietako pertsonen disfrutatu ahal izateko ekintzak prestatu dituzte. Lehen gunea San Nikolas ikastola bera izango da, eta bertan egingo dute hasiera ekitaldia. Besteak beste, ber-

Algortako San Nikolas ikastolan 1.100 ikasle inguru daude gaur egun. Eskuineko argazkian, ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko 2004an egindako kalejira.

GARA

tsolaritzaz, euskal dantzaz, magia ikuskizunaz edo herri bazkariak gozatzeko parada aparta izango dute Ibilaldira hurreratzen diren herritarrek. Tradizioa eta modernitatea uztartuko dira han egun guztian zehar.

Bigarren gunea San Nikolas plazan eta inguruetan kokatuko da, eta bertan kontzertuak, antzerki ikuskizunak, artisautza erakusketak eta kaleak animatuko dituzten kalejira herrikoiak izango dira; baita haurrentzako puzgarriak ere. San Nikolas enparantza ohiko elkargunea izaten da San Nikolas ikastolako komunitatearentzat, eta garrantzi eta protagonismo berezia eman nahi izan diote aurtengo ekitaldian.





La Gilda de Norte

Hechas a mano - Eskuz eginda

Lor itzazu
Consíguelas en:
690 007 070
lagildadelnorte.com

Txonbo!

salsidu
taberna

Salsidu Etorbidea, 9. **GETXO**



Algortako portu zaharra izango da hirugarren gunea. Getxoren nortasunaren erakusle argia da kokaleku hori, eta lotura estua du, gainera, udalerri horren historiarekin zein bertako biztanleekin. Kasu honetan, gunea aproposa izango da, esaterako, euskal musikaz zuzenean gozatzeko Itziarren Semeak edota Xiberoots taldeen eskutik. Horrez gain, Zirku eta txirrindularitza tailerrak ere izango dira.

Laugarren gunea, azkenik, itsasertzean ezarriko dute. Kostaldeko herria izanik, hondartza ere festaren parte izango da, Ereaga hondartza, hain zuzen ere. Leku paregabea, zinez, festaz alaitasunez disfrutatzen. Kasu honetan, ordea, txiki eta gazteentzat bereziki

Euskal hizkuntza eta kalitatezko hezkuntza uztartuz gorpuztutako proiektua

M.A. | GETXO

Euskararen eta euskal kulturaren aurkako jazarpena estua bezain zorrotza zen garaian hasiera eman zion San Nikolas ikastolak haren ibilbide oparoari. 1963. urtean, hain justu, bederatzi familia kementsuk euren seme-alabak euskaraz hezteko hautua egin, eta Begoña Abaitua irakaslearen lemapean ekin zioten ikastola berriaren proiektuari. Hastapenean 12 ikasle besterik ez ziren eskolatu, baina 1968ko ikasturterako, jada, kopuru horrek etengabe gora egin eta 200 ikasle inguru izatera heldu zen ikastola.

Ondorengo hamarkadan, 1970-71 ikasturtean, hain zuzen ere, Irakaskuntza Zentro Kooperatiba bezala eratu zen San Nikolas, eta, orduz gero, aldi oro hazi egin da bertatik igaro diren ikasleen kopurua. Aipatu beharra dago, bestalde, ikastola eta bertako komunitatea irakas-kuntza ikastetxea izateaz gainera, euskara eta euskal kulturaren sustatzaile su-



MARISOL RAMIREZ | FOKU

tsua izan direla sortu ziren unetik bertatik gaurdaino, eta aurrerantzean ere ildo horretatik jarraitzeko borondate sendoa dutela.

Gaur egun 16 urte bitarteko haur eta nerabeek kalita-

teko formazio integrala jasotzen dute San Nikolas ikastolan, eta Getxon HH-ko, LH-ko eta DBH-ko hiru etapak D ereduaren eskaintzen dituen ikastetxe bakarra da. Une honetan, 1.100 ikasle in-

guru bertan ikasten ari dira, eta 700 familiaz eta 140 langile inguruz osatzen da San Nikolas Ikastola kooperatiba elkarteak. Getxoko udalerrian kooperatiba gisako ikastola bakarra da, gainera.

pentsatutako eta prestatutako ekintzak izango dira nagusi. Besteak beste, Goazen!-en emanaldia, egurrezko jolasak, zientzia tailerra edo pailazoen ikuskizuna izango dira gazteen gozagarri.

MOTORRAK BERO JADA

Ibilaldia ez da egun bateko festa soilik, ez horixe; San Nikolas ikastolako komunitateak urte osoa darama gaurko ekitaldia prestatzen, eta denbora horre-

IBILALDIA EZ DA EGUN BATEKO FESTA SOILIK; SAN NIKOLAS IKASTOLAKO KOMUNITATEAK URTE OSOA DARAMA GAURKO EKITALDIA PRESTATZEN.

tan beste hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte udalerrian, motorrak berotzeko asmo irmoarekin. Esate baterako, iragan abenduan bertso afaria egin zuten San Nikolas ikastolan bertan. Urtarrilean, ostera, Getxoko kirolariak eta zenbait klubetako parte hartzaileek herri kiroleko erronka batzuei aurre egin behar izan zieten giro paregabea.

Apirilean, bestalde, ikasle ohien bazkari hunkigarri eta

dibertigarria egin zuten. Bertan elkartu ziren, sagardotegiko menuaren bueltan, San Nikolas ikastolako ikasle izandako 400 bazkaltiar.

Maiatzean, azkenik, adin guztientzako topaguneak antolatu zituzten Ibilaldiaren gunetan, eta baita Txonbo Eguna ere, non Getxoko euskal komunitateak ur ekin- tzez betetako goiz batez disfrutatzen aukera paregabea izan zuen.



**Baserria
zure
eskuetan**

Leche
BIZKAIA
Esnea

www.bizkaiaesnea.com



UNAI ARZUBIAGA Getxoko San Nikolas Ikastolako lehendakaria

San Nikolas ikastolako lehendakaria da Unai Arzubiaga. 2024ko Ibilaldiari azken ukituak ematen buru-belarri dabilela eskaini du ondorengo elkarrizketa. Euskaltzaleak txonbo egitera eta festan parte hartzera animatu nahi izan ditu. Bide batez ziurtatu du askotariko kultura eskaintza dibertigarria prestatu dutela eta sorpresaz eta umorez betetako jai giro aparta izango dela.

«San Nikolas ikastolak euskararen alde egindako lanari balioa eman nahi diogu»

M.A. | GETXO

Sekulako ahalegina egin behar izan duzue Ibilaldia 2024 antolatzeko. Nolakoa izan da ikastolako komunitatearen inplikazioa, ikasle, guraso, irakasle eta abarrena?

Halako tamaina, lan karga eta arlo ezberdin uztartzen dituen jai batek aurretiazko antolaketa bat behar du. Hala, batzorde ezberdinak eratu genituen, arlo ezberdinak behar bezala jorratu ahal izateko. Batzorde bakoitzak bere zeregina izan du, gai bati lotuta, eta nahiko modu autonomoan aritu lanean, baina betiere beste batzorde orokor batekin koordinatuta une oro. Izan ere, halako tamaina duen eta horrenbesteko lana eskatzen duen ekitaldia antolatzeke ezinbestekoa da ikastolako komunitatearen inplikazioa. Ikasle, guraso, irakasle eta herriko elkarre eta eragile askoren arteko auzolana. Gure ikastolaren ezaugarri handienetako bat hori bera da: komunitatea oso errotuta egoteaz gain, zabal delako. San Nikolas, ikastola herrikoa, dinamikoa eta parte hartzailea da, eta, beraz, berau osatzen dutenen inplikazioa oso era naturalean irteten da.

**Egun handia heldu da eta ki-
rioak dantzan izango dituzue
ziur aski. Zein aurreikuspen**

**daukazue festa honen atar-
rian?**

Sentipen ezberdinak agertzen dira egun hauetan. Alde batetik, azken ordukoak behar bezala prestatzeko behar den aditasunak eska-

tzen duen tentsio puntu hori, eta, bestetik, hainbeste landutako ekimen hau Euskal Herriko txoko guztietatik etorriko diren lagun guztiekin partekatzeke ilusioa eta zirrara. Eguraldia lagun, jai

jendetsua espero dugu. Ibilaldiak urtero-urtero euskaltzale andana erakarri ohi du, eta aurtengo ere hala izatea espero dugu. Gure inguruan sumatu dugun ilusioak eta irrikak jendea gogotsu dagoela ira-

dokitzen digu. Eta prestatu dugun egitarau oparoa adintarte guztien gozagarri izatea espero dugu.

**Oraingo honetan zeintzuk di-
ra antolatu duzuen ekitaldia-**



ARGAZKIAK: OSKAR MATXIN EDESA | FOKU



Sarrikola s/n. LARRABETZU · t 94 455 83 37



Iturribide, 2. GETXO · T 94 430 14 29



ren berritasun eta ezaugarri nagusiak?

Ibilaldi guztiek izaten dituzte, urteak joan eta urteak etorri, modaz pasatzen ez diren zenbait ezaugarri eta emanaldi mota. Falta ezin direnak. Eus-kara ardatz hartuta, musika eta kontzertuak, ekitaldi kulturalak, pailazoak, magia, gastronomiari lotutako ekimenak, kirol erakustaldi eta jokoak, tailerrak... Aurten ere adin guztien gozagarri izango den ekitaldi sorta erakargarria prestatu dugu.

Horiez gain, aurtengo ekitaldirako gure ikastolarentzat oinarritzakoak diren baloreetako biri balioa eman nahi izan diegu: alde batetik, ingurumenarekiko jasangarritasuna eta bestetik herriko elkarte ezberdinekin auzolana. Horrela, ingurumenaren aldetik jasangarritasuna eta hari lotuta Erronka Garbia zigilua lortzeko bitartekoak ipini ditugu (erosketetan, edalontzien materialetan, Ibilaldira etortzeko irisgarritasunean, Ibilaldian gauzak garraiatzeko energia

AURTENGO EKITALDIRAKO GURETZAT OINARRIZKOAK DIREN BALOREETAKO BIRI BALIOA EMAN NAHI IZAN DIEGU: INGURUMENAREKIKO JASANGARRITASUNA ETA HERRIKO ELKARTE EZBERDINEKIN AUZOLANA.

berriztagarria erabiltzen duten mugikortasun tresnetan, sortuko den zaborraren antolaketa zehatzean...), halako ekitaldi erraldoi batek jasangarria izan behar duela eta izan daitekeela erakustea erronka gisa hartuz. Eta, bestetik, herrian hain txertatuta egoteak bertako elkarte eta elkargoekin Ibilaldiko ekitaldi askoren anto-

laketa auzolanean era naturalean egitea ahalbidetu digu.

Getxora itzuli da Ibilaldia laugarrenez. Zer dela-eta komeni da horrelako festa bat Getxora heltzea?

Getxok badu Ibilaldiarekin nolabaiteko harreman estua. Ez dugu ahaztu behar Ibilaldia-ren lehenbiziko ekitaldia, 1978an, Getxon izan zela, eta harrezkero Ibilaldia laugarren-goz hartuko du gure herriak. Baina 22 urte luze igaro dira azkenekoz San Nikolasek Ibilaldia antolatu zuenetik. Eta uste genuen, Getxon Ibilaldia bezalako jai batek, besteak beste, gure herriko jendartearen eta haren aisialdian euskarenen erabilera sustatzeko balio zezakeela.

Maiatzaren 26ko Txonbo erraldoi hori euskararen erabileran behin betiko bultzada izango ote da?

Aurtengo Ibilaldiak, euskartatik eta euskaraz egun atsegin eta dibertigarri bat igarotzeko parada ezin hobea izateaz

Etorkizuneko erronkei ilusioz eta irmotasunez ekiteko prest

M.A.

Aurten Getxon ospatuko den Ibilaldia bultzada handia izango da San Nikolas ikastolarentzat eta berau osatzen duen komunitatearentzat. Etekin ekonomikoak ez ezik, gogo aldaratean ere eragin positiboa ekarriko du ospakizunak. Horiekin guztiekin aurrerantzean izango dituzten erronkei aurre egiteko gauza izango direla uste dute.

Aipatu erronka horien artean, Unai Arzubiaga San Nikolas ikastolako lehendakariak zenbait nabarmendu nahi izan ditu. Haren arabera, «etengabeko aldaketa bizi duen gure gaur egungo mundu honek agerian utzi ditu kalitatezko hezkuntza zein formakuntza baten beharra». Izan ere, haren esanetan, «nabarmen geratu da azken urteotan etorkizuneko zenbait aldagai aurreikusitakoak direla. Eta hor, jakintzaz harago, konpetentzien garapena ere aintzat hartzen duen baloreetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza bat ezinbestekoa da. Bestela esanda, oraindik egiteke dauden galderei zein gorpuztu gabeko erronkei erantzun eta irtenbideak emateko gaitasunak garatzea beharrezkoa da».

Bestalde, Arzubiakak dio San Nikolas ikastolak berrikuntzan oinarritutako hezkuntza proiektu mardula eta parte hartzailea garatzea eta etengabe hobetzea duela xede eta erronka nagusi. Azkenik, Arzubiakak adierazi du aurtengo Ibilaldian ateratako irabazi ekonomikoak ikastolan garatu beharreko pedagogia berriek eskatzen dituzten aldaketa arkitektonikoak egitera (Haur Hezkuntza eta espazio balioaniztunak barneratuko dituen eraikin berri bat) bideratuko dituztela.

gain, euskarak aisialdian joka dezakeen paper garrantzitsua erakusgarri egitea du helburu nagusienetakoa.

Datuen arabera, euskararen ezagutza mailak gora egin du, baina ez haren erabilerak. Nolakoa da egoera Getxon?

Uste dut Getxon, azken hamarkadetan, hizkuntzaren jakintzari dagokionez aurrera-

pauso nabarmenak eman direla, eta hor, besteak beste, San Nikolas ikastolak euskararen alde egindako lanari balioa eman nahi diogu. Aldiz, erabilerari dagokionez, oraindik ere badugu zer hobetu. Norbana-koengandik hasten den erronka kolektibo handi eta zirrargarria daukagu aurrean. Eta 2024ko Ibilaldiak horren bultzada izan nahi du.

Joyería **Iñaki & BI**

ALGORTA
Villamonte plaza, 3. t 94 430 23 45
Telletxe, 1. t 94 460 27 41
www.joyeraiainaki.es

GARRKO

MODA

k/ Juan Bautista Zabala, 9. ALGORTA

Denok batera abesteko eta dantzatzeko kantu itsaskorra

**Txonbo! da 2024ko Ibilaldiaren leloa, eta baita aurtengo ekitaldi-
rako sortu duten abestiaren izenburua ere. Algortako San Niko-
las ikastolaren balioak fideltasunez transmititzen dituen melodia
da. Hitzak eta doinua sortzeko prozesuan ikasleek, irakasleek
eta gurasoek parte hartu dute.**

M.A. | GETXO

Aipatutako horien guztien arteko elkarlanak San Nikolas ikastolaren balioak transmititu nahi izan ditu, hala nola euskalduntasuna, kooperatibismoa, gertutasuna eta aniztasuna. Bide batez, elkarrekin lan eginda gauza harrigarriak lortzeko gai direla aldarrikatu eta erakutsi nahi izan diote euskal gizarte osoari. Baina ez hori bakarrik, abestiaren le-

**ABESTIAREN
LETRAK KEINU
ZUZENA EGIN
NAHI IZAN DIO
GETXON 1978.
URTEAN
OSPATUTAKO
BIZKAIKO
IKASTOLEN
ALDEKO LEHEN
EKITALDI HARI.**

trak keinu argi eta zuzena egin nahi izan dio Getxon 1978. urtean ospatutako Bizkaiko ikastolen aldeko lehen ekitaldiari. Garai hartan euskaltzale haiek erakutsitako kemenari eta ilusioari eusteko deia egin nahi izan dute.

Kantuaren hitzen egileak, aldiz, ALBE Algortako Bertsolari Eskolako kide eta ikastolako ikasle-ohiak, irakasleak eta gurasoak izan dira, eta letra horien bidez ere ikastolaren

balioak islatu nahi izan dituzte, baita herritarrak euskaraz bizitzera bultzatu ere. Bestalde, ikastola eta herriaren arteko loturari keinua egiten diote hitzek. Azken batean, Getxo euskalduna dela, eta ahalegin

horretan indartsu dagoela adierazten du kantuak.

Energia eta baikortasuna

Abestia ez ezik, aurtengo ekitaldiko bideoklipa ere grabatu dute. Antolatzaileek onartu dutenez, grabaketa prozesua hunkigarria bezain zirrargarria izan da, eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta inplikazioa txapela kentzeko modukoa. Grabaketak Algortako zenbait toki esanguratsutan eta San Nikolas ikastolako instalazioetan bertan egin dituzte. Horietan ikasleek, irakasleek, langileak, gurasoek, ikasle ohiek eta herriko Getxoko hainbat talde-tako pertsonak parte hartu dute elkarlanean eta IN-komunikazio agentziaren zuzendaritzapean.

Grabaketa prozesua, hortaz, mardula bezain oparoa izan da eta, orotara, hiru eguneko denbora tartea hartu behar izan dute behin betiko produktua sortu ahal izateko. Azken emaitza energiaz, kolorez eta baikortasunez betetako bideoklipa izan da, eta ikastolaren nortasuna eta balioak ederki islatzen dituena.

Aurkezpen hunkigarria

Iragan martxoaren hasieran egin zuten aipatutako abestiaren eta bideokliparen aurkezpena Algortako Muxikebarri antzokian. Eraikineko aretoa jendez lepo bete zen eta emozioz eta sentipenez betetako



Abestiaren eta bideokliparen aurkezpena Algortako Muxikebarri antzokian egin zen.

GARA

1.

*Ikastola
gunea*

11:00-13:00 ● ERRONKA DBH
11:00-12:00 ● ITXARTU DANTZA TALDEA
11:00-13:00 ● TOPAKETA HH
12:00-13:30 ● TOR MAGOA
13:00-14:00 ● ZURRUMURRUEN AURKAKO IPUIN KONTAKETA
13:30-14:30 ● KADIRA
13:30-15:00 ● ARGIA: UMEENTZAKO TAILERRA
14:00-16:00 ● HERRI BAZKARIA
15:00-16:00 ● BERTSOLARIAK
16:30-17:30 ● YOGURINHA
17:30-19:00 ● DJ KAKTUS

KLIMA ALDAKETA TAILERRA, PUZGARRIAK

2.

*Herria
gunea*

11:00-12:00 ● KIMETZ ETA BIOTZ ALAI
11:00-13:00 ● TOPAKETA LH 5-6
12:15-13:15 ● ZASI ESKOLA ETA AGURRA DANTZA TALDEA
13:00-15:00 ● HERRI KIROLAK
13:30-15:30 ● HASZTEN
14:00-15:00 ● ZURIKETAN BELTZ
15:30-19:00 ● TAILERRAK ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA
15:30-16:45 ● ITXAS ARGIA DANTZA PLAZA
18:00-19:00 ● BELE

PUZGARRIAK, AZOKA

● ESZENATOKIAN ● GUNEAN

ibilaldia 2024 Getxo

IBILBIDEAN: Sanikolbiltaria, Agurra taldea (Buruhandiak eta erraldoiak), Kutxus Areatxu fanfarrea, Musikalia herriko banda, Batukale samba,...

3. Portu zaharra gunea

4. Hondartza gunea

Programa:

- DJ MUXUTRITZZZ 11:00-12:00
- TOPAKETA LH 1-2 11:00-13:00
- NAZKA 12:30-13:30
- ZIRKO TAILERRA 13:00-15:00
- ITZIARREN SEMEAK 14:00-15:00
- XIBEROOTS 15:30-17:00
- DJ BULL 17:00-19:00

SUHILTZAILEAK, EUSKALTEL TXIRRINDULARITZA TAILERRA

bbkE euskaltel FUNDATZIOA

Programa 4:

- ESTITXU ROBLES 11:00 11:30
- TOPAKETA LH 3-4 11:00 13:00
- ZUNBA 12:00 13:30
- EGURREZKO JOLASAK 13:00 16:00
- KIKI, KOKO ETA MOKO PAILAZOAK 14:00 15:00
- GOAZEN 15:30 16:30
- BITSA FESTA 16:30 17:00
- BIDEAN ERROMERIA 17:00 19:00

ZIENTZIA ETA JASANGARRITASUNA GUNEA EUSKRANIA ETA ATFAL (SAHARA) EGUN OSOAN

Partners: eitb, Kaiku, EROSKI zurekin

Services: Banku txartelak, Tikitak, Komunak, Arropa, Edalontzi/botila itzulketak, Janariak, Pastelak, Taloak, Edariak, Iturria, Kafea, Izozkiak, Gurutze gorria

ekitaldia bizi izan zuten bertaratutakoek.

San Nikolas ikastolatik igarotako Asier Hormaza aktorea eta Itxaso Paya bertsolaria izan ziren aurkezpena gidatu zutenak.

Oholtza gainera igo ziren, besteak beste, ikastola horretako Txaramela musika eskolako kideak eta Dantzarte dantza taldeko partaideak. Biek ala biek aho bete hortz utzi zituzten ikus-entzuleak, eta momentu gogoangarri eta zirraragarriak eskaini zituzten. Izan ere, Txaramelako musikariek talentu handiko hiru in-

**HITZEN EGILEAK
ALGORTAKO
BERTSOLARI
ESKOLAKO KIDE
ETA IKASTOLAKO
IKASLE-OHI,
IRAKASLE ETA
GURASOAK IZAN
DIRA. LIDE
HERNANDOK ETA
BESTE ZENBAIT
LAGUNTZAILEK
ERE PARTE HARTU
DUTE.**

terpretazio ikusgarriekin liluratu zuten publikoa eta Dantzarteko dantzariak, berriz, erritmoz betetako koreografia bikaina taularatu zuten.

Horiez gainera, aipagarria da Lide Hernando, Liher taldeko abeslariak eta beste zenbait laguntzailek kantua sortzeko prozesuan izandako parte hartzea.

Modu horretan, San Nikolas ikastola komunitateko kideen indarra eta talentua agertu ahal izan zituzten, eta elkarlanaren bidez gauza ikusgarriak egiteko gai direla demostratu zuten.



Lide Hernando, Liher taldeko abeslariak, bere kolaborazioa eskaini du.

IBILALDIAN TXONBO

Zipriztindu euskaraz gurekin!

SGIN!

ehbildu

Euskararekin, sortu ginenetik

EROSI
+ BAZKIDE
TOKI

EROSKI



Maiatzak 26
GETXO



Hemengo
izatea ona da

